

Ihesi

Euskal Herria ezagutuz

TESTUA ETA ARGAZKIAK:
AIALA ELORZA

Gasteiz (Araba)

Maldan gora Gasteiz, maldan behera Vitoria

Vitoria da batzuentzat, Gasteiz beste batzuentzat, ofizialtasun kutsua duten aipamenetan gidoi batek lotzen ditu, edo agian banatzen, EAEko eta Arabako hiriburuaren bi izenak. Eta izenarekin batera doakio hiriari izana; oraingoan, bi direnez gero, izanak. Hala, bi Gasteiz ezagutuko ditugu ondorengo lerroetan, edo Gasteiz bat eta Vitoria bat, auskalo. Muinoko kantoietan Erdi Aroaren arima eskuz ukitzen saiatuko gara, beherago, hiri neoklasikoan, hain iraganekoak ez diren garaietara eramango gaituzte jauregi dotoreek. Asko eskain dezake izen bakarra nahikoa ez duen hiriak.

Oso leku gutxi dute, Vitoria-Gasteizek bezala, izena eta abizena. Izena, “Nueva Victoria”, Nafarroako Antso VI.a erregeak jarri zion 1181ean, herri zena hiri izendatuz. Abizena, muino gainean zegoen Gasteiz herrixkak eman zion. Garai hartan, Gaztelako erreinuak hiri bereganatu eta, horrela, Gasteizek izaera militarra galdu zuen, artisau eta merkataritza bilakatu.

Azken urteotan, eta batez ere 1950eko hamarkadatik aurrera, hiri handi bihurtu da Gasteiz. Auzo ugari jaio zaizkio lau haizetara. Antzinako erromatarrek bezala, hiri honek ere lurralde berriak konkistatu ditu Arabako Lautadan, eta baita inguruetako zenbait herrixka bereganatu ere.

Hala ere, konkista ez da erabatekoa. Etxebizitzak bai, aurkitu egin ditugu han eta hemen, kolore, material eta tamaina guztietakoak, baina bizitza? Non da gasteiztar guztien bizitza, bai betikoena bai

berriena? Leku askotan gertatu ohi den bezala, Gasteizen ere esparru txiki bat da hiriaren arnasa. Nonahi aurkituko ditugun bide-seinaleek horra garamatzate: erdigunera.

Erdi Aroko hiri muinoan

Hirigintza etengabeko erronka izan da Gasteizentzat, eta esparru horretan aitzindari bihurtu da hiri. Muinoko eraikinei erreparatu gero, XII. eta XIV. mendeko arbendol itxurako egitura antzemango dugu. Kaleen izenak ere mende haietako egitura sozialaren seinale dira: Aiztogile, Zapatagile edo Errementari. Erdi Aroko karrika hauetan barrena gabiltzala, Errenazimentuak utzitako aztarnak aurkituko ditugu, familia nobleek egindako jauregi dotore bihurturik: Kordoietxea, Eskoriaitza-Eskibel jauregia, Villa Suso jauregia, Doña Otxanda dorretxea... Gehienak museo edo eraikin publikoak dira gaur egun.

Kale estuz eta kantoietan osatutako hirixka honen inguruan, harresi handia altxatu zuten. Erabat ziur ez badakigu ere, ustez Antso Jakituna izan zen hiri harresiz inguratzen hasi zena. Garai hartan, bi ate baino ez zituen eta Santa Maria eta San Bizente tenpluen paretak ere harresiaren zati ziren. Egun, eraberritutako 230 metroko harresiaren zatia bisitatu daiteke.

Harresitik gertu, Erdi Aroko altxorra aurkituko dugu, Santa Maria Katedrala. Eliza-gotorleku baten gainean eraiki zuten egun ikusten dugun tenplu gotikoa. Eraikinaren ahuleziak bat-bateko eraberritzea egitera behartu zuten 1990eko hamarkadan. Momentu hartan Santa Maria Katedralaren Fundazioa sortu zen, lanak gidatu eta tenpluari mundu mailako ospea emanaz. Ken Follet izan da azkena, baina Antonio Gala, Arturo Pérez-Reverte eta Geraldine Chaplin ere egon dira, besteak beste, Santa Maria katedralean.





Ezkerretik eskumara, Zeledonen eskultura, Ama Birjin Zuriaren enparantza eta Harategi kantoia, harresi zaharraren zati bat ikusgai duelarik. Hurrengo orrialdean, San Bizente aldaia.

Lautadan hiri neoklasikoa

Hiriak hedatze prozesu handia nozitu zuen XVIII. mendean. Garai hartan, muinoan zegoen Erdi Aroko hiria Arabako Lautadara zabaldu behar zen, horrek hirigintza eta arkitektura aldetik zekartzan zailtasun eta guzti. 22 metroko desnibela gainditzeko lanak 1781. urtean hasi ziren, Justo Antonio de Olaguibel gasteiztar arkitektoa zuzendari zela. Proiektu hark muinoaren punturik altuena gaurko Dato kalearekin lotzea lortu zuen. Hala, “Los arquillos”, Enparantza Berria, Ama Birjin Zuriaren Enparantza eta Matxete Plaza sortu ziren. Altxor arkitektoniko horrek zerikusi txikia du orain gutxi irisgarritasun arazoei konponbidea emateko egin diren aldapa mekanikoei.

Desnibela gaindituta, Enparantza Berria dago, arkupeduna eta erabat

karratua. XIX. mendean sortu zuten, festak, zezenketak eta herri merkatuak egiteko. Han dago hiriko udaletxea, arkitektura neoklasikoaren adierazle. Haren parean jarritz gero, eraikinaren atzetik ageri, enparantzaren zaindari diren bi dorre ikusten dira. Ezkerreko aldean San Migel, kontrako aldean San Bizente. Bi elizadorre horiek, Santa Maria eta San Pedroekin batera Gasteizko “lau dorreak” izenez ezagutzen ditugu.

Jaiaren bihotza

Ama Birjin Zuriaren Enparantza gasteiztarren ohiko topalekua da, hemen elkartzeko dira urtero, abuztuaren 4an, Zeledonen jaitsierarekin hiriko jaiei hasiera emateko, baita hiriko kirol taldeak, TAU zein Alaves, omentzeko ere. XIX. mendeko etxez eta horien ezaugarri diren egu-

rrerko leiho zabalez inguratuta dago, eta plazaren erdian “Vitoriako Bataila”-ren omenez eraikitako monumentua ikus daiteke. Hiruki formako enparantza honen erpinean, XIV. mendeko San Migel eliza dago. Tenpluaren kanpoko aldean, Gasteizi begira, Ama Birjin Zuria, hiriko zaindaria. Azken urtean eztabaida handia izan da enparantzaren inguruan, zaharberritzea dela eta. Ekaitzaren ostean, gauzak lasaitu eta lanak aurrera doaz. Uda partean bukatuko omen dira.

Hiriko merkatua zegoen lekuan, egun, Foru Plaza dago. Peña Ganchegui arkitektoaren proiektuaren arabera eraiki zen 80ko hamarkadan. Hiriaren ikur bihurtu dira enparantzaren harmailak, frontoia eta sakonunean dagoen Chillidaren eskultura. Plaza honen inguruan, hiriko bi kale nagusi, Independentzia eta Postas. Biek bat egiten dute hiriko beste gune garrantzitsu batean, Posta enparantzaren. Izenak agintzen duen bezala, bertan dago hiriko postetxea. Eraikina XX. mende hasierakoa da eta sinestezina badirudi ere, arkitektoari ate nagusia proiektatzea ahaztu zitzaion. Hala, sarrera handi baten ordez, etxaurre nagusiaren bi muturretan ate txiki bana eraiki behar izan zuten.

Jauregiak begi-bazka

Florida Parkea XIX. mendean diseinatu zen garaiko joera erromantikoei jarraiki. Lorategi botaniko handia izateko jaio zen, erreka eta baso lege ugariarekin. Lorategian barrena munduko leku guztietatik heldutako

Armentia, euskal arkeologoek niniatako bat

Hiri erdialdetik kanpo, *La Senda* pasealekuaren bukaeran, Armentia babilika dago, XII. mendeko tenplua, Euskal Herriko arte erromanikoaren adierazle nagusietako bat. Eliza barruan San Prudentzio dago, arabarren zaindaria. Ohiturak aginduta, urtero, apirilaren 28an, santuaren egunean, erromeria handia egiten da, hiri erdian hasi eta Armentia zelaieraraino doana.

Arkeologoentzat leku preziatua dugu hau. Hantxe dago, egun, Euskal Herriko indusketa-gunerik

aipagarrienetakoa. Armentia apezpikutza baten egoitza izan zen X. mendean, eta horrek pentsarazten du noizbait katedrala izan zela bertan, gaurko basilikaren ordez. Katedral horren aztarnen bila, aurkikuntza garrantzitsuak egin dituzte ikerlariak. Besteak beste, bi sakraria. Elizen inguruan egindako zirkuluak dira sakrariak, eta ohikoak ziren XI. mendean. Europa erdian oso ezagunak dira, baina Euskal Herrian bakarrak, oraingoz, Armentiakoak ditugu.



espezieen aldaki arraro eta exotikoak aurkituko ditugu. Parkearen erdian musika kioskoa dago, eta haren inguruan Madrildik ekarritako lau errege godoren giza irudiak. Lorategiaren sarreran Eusko Legebiltzarra ageri da, eta metro gutxira, hiriko katedral berria. Tenplua eraikitze lanak 1907an hasi ziren garaiko haize neogotikoei men eginez. Eraikina oraindik erabat bukatuta ez badago ere, 1969. urtean inauguratu zuten, Maria Guztiz Garbiaren omenez.

Florida parkean Armentia basilikaraino doan *La Senda* pasealekua hasten da. Zuhaitzen itzalpean, bidearen bi aldeetan, XX. mende hasierako jauregi ederrak aurkituko ditugu. Horien artean ezagunenak Zulueta, Villa Sofia eta Augusti dira, azkenekoa gaur egun Arabako Arte Eder Museo bihurtua.

Ibilbidearen kontrako aldean beste jauregi garrantzitsu bat, Ajuria Enea. Haren kanpo itxurak "euskal estiloa" esan zaionaren elementu arkitektoniko guztiak erakusten ditu. Garai batean, jauregian Ajuria familia bizi zen. 1972an Arabako Foru Aldundiak bereganatu eta sei urte geroago, Euskal Artearen museo bihurtuta, herritarrei zabaldu zizkien ateak. Hamarren bat urte beranduago, jauregia Euskal Autonomia Erkidegoaren eskuetara pasa zen, bertan, ondo jakina denez, Lehendakariaren egoitza ofiziala ezarri. ■

kenzazpi

www.kenzazpi.com · www.pserrano.com



"Argiak" diskoaren aurkezpen kontzertua

kenzazpi
taldearen eskutik.

Otsailaren 8a Gasteizko Azkena aretoan
21:30etan

SARRERAK: 5 euro (10 euro 30 urtetik gorakoek)

SALTOKIAK: Aldez aurretik Gong Diskak,
Zuloa eta Disco Laser. Egunean bertan Azkena aretoan



Disko berria!

